

“Ut sit” konstituzio apostolikoa

Aulki Santuak, Konstituzio apostoliko honen bitartez, Eliza Katolikoaren lehen Prelatutza pertsonal bezala eraiki zuen Opus Dei, Vatikanoko II. Kontzilioak sortutako figura juridiko berri bat.

2004 Mar 2

“Hasieratik, hain zuzen ere, Erakunde hau, laikoen misioa Elizan eta gizartean argi berriez hornitzen ez ezik, aurrera eramaten ere saiatu da; era berean, santutasunerako dei

unibertsalaren doktrina gauzatzen
ahalegindu da, eta gizarte maila
guztietan lanbidearen santutasuna
eta lanbidearen bidez santutasuna
sustatzen. Gainera Gurutze
Santuaren Apaiz Elkartearen bidez,
apaiz sekularrei, beren apaiz
ministeritzan, ikasbide bera bizi
dezaten laguntzen saiatu da” dio
dokumentuak hasieran.

Opus Dei hazten ari zen neurrian eta
mundu osoko elizbarruti askotara
zabaltzen, ikusten zen beharrezkoa
zela konfigurazio juridiko egoki bat
ematea, eta “Vatikanoko II.
Kontzilioak Elizaren
ordenamenduan, Presbyterorum
Ordinis Dekretuaren bidez (10.z), (...)
Prelatutza pertsonalen figura sartu
zuenetik lan pastoral bereziak
egiteko, garbi ikusi zen figura
juridiko hori guztiz ongi egokitzen
zitzaiola Opus Deiri”.

1979an, Aita Santuaren mandatuz, Apezpikuentzako Kongregazioak arreta handiz aztertu zuen Opus Deik egindako eskaera formala, alde historiko, juridiko eta pastoralak kontutan izanik. Horrela, eskaera onartzeko edozein zalantza baztertuta geratu ondoren, Opus Dei Prelatutza pertsonal bihurtzea egoki eta onuragarri zela nabarmendu zen.

Beraz, 1982ko azaroaren 28an, Opus Dei, nazioarteko Prelatutza Pertsonal bezala eraikia izan zen eta, aldi berean, Gurutze Santuaren Apaiz Elkartea ere bai, Prelatutzari berez loturiko apaizen elkarte bezala. Dokumentu beraren bitartez, orduan Opus Deiren Lehendakari zena, Alvaro del Portillo Monsinorea, Opus Deiren Prelatu izendatzen zen.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/ut-sit-
konstituzio-apostolikoa/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/ut-sit-konstituzio-apostolikoa/) (2025 Abu 5)